# XLIX Antzerki jardunaldiak
# Jornadas de teatro
# Eibar 2026



Baroja Collet

# XLIX. Antzerki Jardunaldiak
## XLIX. Jornadas de Teatro

**EIBAR**

Ospa ditzagun beste behin Eibarko Antzerki Jardunaldiak! Berrogeita bederatzi urte igaro dira Uniko zenbait irakasle zenbakia jartzen hasi zirenetik Unibertsitate Laboraleko Areto Nagusiko jardunaldi batzuetan egindako antzerki-emanaldiei.

Berrogeita bederatzi edizio dagoeneko. Urte hauetan guztietan gauza asko aldatu arren, haien ezaugarria programazio eklektikoa eskaintzea izan da beti. Hasieran, batez ere, jardunaldiak Unibertsitate Laboraleko ikasleei zuzenduta zeuden. Geroago, Eibarko eta eskualdeko jendea bereganatu zuten modu naturalean. Eta azkenerako, neguko euskal herriko antzerki ekitaldi nagusi bihurtzea lortu zuten.

Jardunaldiek aurten ere enfasia jartzen dute gizakiok istorioak kontatzeko eta entzuteko dugun premian. Gatazkaz betetako istorioak, musika-konposizioen melodia gisa funtzionatzen dutenak. Gonbidatzen gaituztenak emozioan, hausnarketan, enpatian… murgiltzera. Bakardadeaz hitz egiten duten istorioak, eguneroko heroitasunaz, komediaren oinarri diren baldarkeriaz eta porrotaz, genero-trantsizioaren identitateaz, herrien identitateaz, eguneroko bizitzaren porrotez, gizakien esplotazioaz, maitasun erromantikoaren kritikaz, emakume saregileen sororitateaz, edo Gloria Fuertes guardiako poetaren unibertsoaz…

Imanol Arias etxera itzuliko da, eta horren inguruan arituko da inaugurazio solasaldian. Maria Barranco izango du lagun.

Ane Gabarain, Nerea Mazo, Irene Hernando, Ane Pikaza, Andrea Jiménez, Gema Matarranz, Jone Laspiur, Txubio Fernández, Ramón Aguirre, Mikel Laskurain, Millán Salcedo eta Joseba Apaolaza, besteak beste, edizio honetan arituko diren antzezle-zerrenda luzearen adibide batzuk baino ez dira. Aktore bat izango dugu protagonista-paper bat jokatuko duena, (aktoreak berak ere oraindik ez daki, eta antolakuntzak ere ez).

Antzezlanei dagokienez, hainbat autore izango ditugu, hala nola Harkaitz Cano, Ximon Fuchs, Patxo Telleria, Eva Guerrero, Salomé Lelouch, Alma García, María Goiricelaya, Marta Torres, Erika Olaizola, edo bizirik dagoen egile alemaniar antzeztuena: Roland Schimmelpfenning.

2013an Uni Kultur Elkartearen eskutik hartu zuen erreleboaren ondoren, Eibarko Udalak antolatzen ditu jardunaldiak, Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin.

Jardunaldiek harreman bat hasi dute aurten Dantzertirekin, emankorra eta iraunkorra izatea espero duguna. 4. mailako ikasleen ikasturte amaierako dantza-lana Coliseo antzokian aurkeztuko da.

Beti bezala, gonbita egiten dizuegu antzerki-programa hau mapa baten gisara erabil dezazuen: irakur ezazue arretaz; sar zaitezte antzezlanen istorioetan; erreparatu aktoreei eta zuzendariei; miretsi ezazue Baroja Colletek diseinatutako kartela, zeinean bere unibertso eta pertsonaiekin batera nabigatzera gonbidatzen gaituen; eta joan zaitezte Eibarko antzokietara, non, beti bezala, hauxe esango dizuegun: Eskerrik asko etortzeagatik!

¡Celebremos un año más las Jornadas de Teatro de Eibar! Han pasado cuarenta y nueve años desde que unos cuantos profesores de la Uni decidieran poner número a unas cuantas representaciones de teatro que se agrupaban en unas cuantas jornadas en el Salón de Actos de la Universidad Laboral.

Con esta son cuarenta y nueve ediciones con sus diversos cambios. Siempre con la característica de ser una programación ecléctica. En sus inicios se dirigían principalmente al alumnado de la Universidad Laboral. Incorporaron de forma natural al público de Eibar y comarca. Y se ganaron , con su constancia, ser el gran acontecimiento teatral vasco del invierno.

Las Jornadas vuelven a poner el énfasis en la necesidad que tenemos los seres humanos de contar y escuchar historias. Historias impregnadas de conflictos que funcionan como la melodía de las composiciones musicales. Historias que invitan al público a sumergirse en la emoción, en la reflexión, en la empatía… Historias que nos hablan sobre la soledad, la heroicidad cotidiana, la torpeza y fracaso como base de la comedia, la transición en la identidad, las identidades como pueblo, los fracasos en la vida cotidiana, la crítica a la explotación de seres humanos, al amor romántico; la sororidad de las mujeres rederas; o la puesta en escena del universo de la poeta de guardia Gloria Fuertes…

Imanol Arias volverá a su casa, y sobre eso versará el coloquio inaugural. Estará acompañado por María Barranco.

Ane Gabarain, Nerea Mazo, Irene Hernando, Ane Pikaza, Andrea Jiménez, Gema Matarranz, Jone Laspiur, Txubio Fernández, Ramón Aguirre, Mikel Laskurain, Millán Salcedo y Joseba Apaolaza, entre otros, formarán parte de los elencos de las compañías de teatro que actuarán en esta edición de las Jornadas. Tendremos un actor que interpretará un papel protagonista y que a día de hoy ni él mismo lo sabe y la organización lo desconoce.

En las dramaturgias contamos con las de Harkaitz Cano, Ximon Fuchs, Patxo Telleria, Eva Guerrero, Salomé Lelouch, Alma García, María Goiricelaya, Marta Torres sobre poesías de Gloria Fuertes, Erika Olaizola, o la del autor alemán vivo más interpretado, Roland Schimmelpfenning.

Tras el relevo que tomó de manos de Uni Kultur Elkartea en el 2013, el Ayuntamiento de Eibar organiza estas Jornadas. El Gobierno Vasco y la Diputación Foral de Gipuzkoa acompañan a este acontecimiento teatral.

Las Jornadas inician una relación con Dantzerti que esperamos que sea fructífera y duradera. El trabajo de danza de fin de curso del alumnado de 4ª se presentará en el Coliseo.

Como siempre permítannos invitarles a que utilicen este programa teatral como un mapa con sus rutas: léanlo atentamente; sumérjanse en sus tramas e historias; fíjense en los elencos y direcciones; observen el cartel diseñado por Baroja Collet, en el que nos invita a navegar junto con su universo y personajes; y acudan prestas a disfrutar a los teatros de Eibar, dónde como siempre les volveremos a corresponder con ¡Gracias por venir!



**SOLASALDIA**
COLOQUIO

**Aurkezlea _ Presenta**
Irene Hernando

**COLISEO**

# "La casa"

**09** | **OTSAILA** FEBRERO | **Astelehena** Lunes | **19:00**




Eibarko Antzerki Jardunaldiei hasiera ematen dien solasaldian Imanol Arias aktorea izango dugu. Bi egunetan, senarraren papera jokatuko du Mejor no decirlo antzezlanean, emaztearen papera antzezten duen María Barrancorekin batera.

Imanol Ariasentzat Eibarrera etortzeak etxera itzultzea esan nahi du. Tiresias mitologia klasikoko pertsonaia igarle eta itsuak honela esaten dio bere alaba Mantori: "Alaba, izan dezazula beti itzultzeko leku bat". Horri buruz, arituko dira Antzerki Jardunaldien XLIX edizioa inauguratuko duen solasaldian: zein da aktoreek itzultzeko izan behar duten lekua, etxea, agian?

Antzerki-lanak bidaiatzera behartzen ditu aktoreak, odisea txikiak egitera, non espazio desberdinetan publiko desberdinei aurre egin behar dieten. Behartzen ditu etxetik kanpo tarte luzeak igarotzera. Eskakizun hori zuten antzinako legoako komikoek, zeinak herriz herri ibiltzen baitziren legoa bateko distantziara, beren antzerki-ikuskizunak antzeztuz, jakin barik oso ondo zein zen haien benetako etxea. José Bodalo aktoreak hirurogei eta hirurogeita hamarreko hamarkadetan penintsula iparraldean egiten zituzten birak gogorarazi zizkigun dokumental batean; konpainiak hilabete luzez etxetik eta familiatik urrun egotera behartuta zeuden.

Etxetik kanpo igarotako bolada luze horiek eta beti itzul daitekeen leku bat edukitzea izango dira Imanolekin izango dugu solasaldiaren aitzakia. Eibarrera itzuli da. Zein da aktorearen etxea? Etxea al da txikitan kaleak, plazak edo eskolako patioa zeharkatu ondoren itzultzen zen espazioa? Familia al da etxea? Antzezten dituzten pertsonaien bizipen-espazioak al dira? Edo benetako etxea ez al da zapaltzen den edozein plato, errodaje eta eszenatoki?

En el coloquio con el que las Jornadas de Teatro de Eibar acostumbran a abrir el mes largo de representaciones contaremos con el actor Imanol Arias. Interpretará durante dos días el papel de Él, en la obra de teatro "Mejor no decirlo", junto con María Barranco, en el personaje de Ella.

Para Imanol Arias actuar en Eibar supone volver a su casa. Tiresias, el personaje adivino y ciego de la mitología clásica le dice a su hija Manto "Hija, ten siempre un lugar al que poder regresar". Sobre ello, sobre cuál es el lugar que las actrices y actores deben tener para regresar, ¿la casa quizá?, versará el coloquio que servirá para inaugurar la edición XLIX de las Jornadas de Teatro.

La profesión teatral exige a sus integrantes viajar y realizar pequeñas odiseas en las que se enfrentarán en distintos espacios a distintos públicos. Pasar largos espacios de tiempo fuera de casa. Esa exigencia tenían los cómicos de la legua, que iban de pueblo en pueblo situados a esa distancia, representando sus espectáculos teatrales, sin saber muy bien cuál era su verdadera morada. El desaparecido actor José Bódalo nos recordaba en un documental las giras de temporadas de las décadas de los sesenta y setenta, por el norte que obligaban a las compañías a estar lejos de casa y la familia durante varios meses.

Estas largas estancias fuera de casa y ese lugar al que siempre se pueda regresar, se convierten en la excusa del coloquio con Imanol. Vuelve a Eibar. ¿Dónde se encuentra la casa del actor? ¿Es la casa el espacio al que se regresaba de niño tras recorrer las calles, plazas o el patio del colegio? ¿Es la familia? ¿Son los espacios vivenciales de los personajes que interpretan? ¿Acaso la verdadera casa se encuentra en cualquiera de los escenarios, platós y rodajes que se pisan?





# Mejor no decirlo

**Salomé Lelouch | Pablo Kompel, 11T' ai Creaciones y Pentación Espectáculos** _ Madrid

**COLISEO**

**10** / **11** **OTSAILA** FEBRERO
**Asteartea** Martes / **Asteazkena** Miércoles
**19:00**

**80' COMEDIA**

**Antzezleak** _ Intérpretes
Imanol Arias, María Barranco

**Zuzendaritza** _ Dirección
Claudio Tolcachir

Gizona (Imanol Arias) eta Emakumea (María Barranco) elkarrekin urte asko daramatzaten senar-emazteak dira. Haien formula, garaiezina: noiz hitz egin eta noiz isildu jakitea. Baina, zer gertatuko litzateke behingoagatik planteatuko balute dena, den-dena, esatea? *Mejor no Decirlo* komedia zoragarria da, zeinean geure burua islatuta ikusten dugun denok. Batez ere, ez dugunok gustuko eteten ari garenean hitz egin diezagutela.

*Mejor no decirlo* probokazio bat da, eta aktuazio gozagarri bat. Bi jokalari sutsu, beti isilpean lagatzen dugun horren ateak irekiz. Topiko guztiak zalantzan jarriz, umorez, konplizitatez eta ironiaz ikuspuntuak aldatuz. Niretzat plazer hutsa da miresten dudan eta maite dudan jendearen lan hau. Plazer bat ikusleekin komedia bizigarri eta dinamiko bat partekatzea. Eta bakoitzak jakingo du azkenean zer zen hobe: dena esatea edo ez esatea.

Él (Imanol Arias) y Ella (María Barranco) son un matrimonio que lleva muchos años juntos. Su fórmula, imbatible: saber cuándo hablar y cuándo callar. ¿Pero, qué sucedería si por una vez en la vida se plantearan decir todo, absolutamente todo? *Mejor no Decirlo* es una comedia deliciosa, en la que todos nos veremos reflejados. Sobre todo los que no nos gusta que nos hablen cuando estamos interrumpiendo.

*Mejor no Decirlo* es una provocación, un disfrute de actuación. Dos jugadores encendidos, abriendo las puertas de lo que siempre pensamos que es mejor no mencionar. Poniendo en duda todos los lugares comunes, cambiando el punto de vista con mucho humor, complicidad y una infinita ironía. Para mí es un placer personal este encuentro de gente que admiro y quiero. Para compartir con el público una comedia estimulante y dinámica. Y cada uno sabrá si finalmente era mejor o no: decirlo.

# Kandida

Patxo Telleria | Tartean Teatroa _ Bizkaia

**COLISEO**

**18** | **OTSAILA** FEBRERO | **Asteazkena** Miércoles | **19:00**

Antzezlanaren ekintza eleberriaren aurkezpen gau berean hasten da, norbaitek Clararen atea jotzen duenean. Bi urte baino gehiago ziren elkar ikusi gabe, eta kaleak gogor zigortu du, baina berehala ezagutzen du. Manuela da, Clara inspiratu zuen etxegabetutako emakume zaharra. “Kandidako pertsonaia bezala, zure etxean hartu nazazun etorri naiz, eleberrian egiten duzun bezala.”

Clarak, nahi ez arren, zaharra etxean hartzera behartuta sentitzen du bere burua, eleberriaren editoreak gomendatuta. Liburua autofikzio kutsuarekin saldu dute, argitalpenaren tirada oso handia izan da, eta jokoan dago inbertitutako dirua eta Clararen beraren prestigioa idazle gisa. Jendeak jakiten badu Clararen bizitza errealean eleberrian kontatutakoaren guztiz kontrakoa gertatu dela, dena pikutara joango da.

La acción teatral arranca la misma noche de presentación de la novela, cuando alguien llama a la puerta de Clara. Hace más de dos años que no la ve, y la calle la ha castigado, pero la reconoce. Es Manuela, la anciana desahuciada en la que se inspiró para su personaje de “Cándida”. “He venido a que me acojas en tu casa como haces en la novela.”

Clara, contra su voluntad, se ve obligada a aceptar a la vieja en su casa por un tiempo, recomendada por el editor de la novela. Han vendido el producto con tintes de autoficción, la tirada ha sido muy ambiciosa, está en juego el dinero invertido y el propio prestigio de Clara como escritora. Si el público llega a saber que Clara ha hecho en la vida real lo contrario que en la novela, todo se irá al traste.



EUSKARAZ

**80’ TRAGICOMEDIA**

**Antzezleak _ Intérpretes**
Miren Gaztañaga, Mikel Martínez, Nerea Mazo

**Zuzendaritza _ Dirección**
Patxo Telleria



# Casting Lear

**COLISEO**

**Andrea Jiménez, William Shakespeareren Rey Learretik abiatuta, Juan Mayorgaren bertsioa oinarri hartuta _** Andrea Jiménez, a partir de Rey Lear de William Shakespeare, versión de Juan Mayorga | **Barco Pirata _** Madrid

**21** | **OTSAILA** FEBRERO | **Larunbata** Sábado | **19:00**



**90’ COMEDIA**

**Antzezleak _ Intérpretes**
Andrea Jiménez, Juan Paños, actor sorpresa

**Zuzendaritza _ Dirección**
Andrea Jiménez, Úrsula Martínez

Nire aita Lear da, baina ez da inoiz antzoki batean sartu. Ni Cordelia naiz. Eta antzerki zuzendaria naiz. Bera bezala, Learren bila noa, begiratzera ausartuko naiz eta barkatzen saiatuko naiz. Eta eszenatoki batetik egingo dut. Gauero, aktore desberdin bat, Lear izango da, nire aita izango da, aita izan daiteke, antzoki batean hitz egitera eseri nahi duen bat.

Lear Erregearen bertsio simulakro honek ate irekia izan nahi du gure gurasoekin, biologikoekin, baina baita metaforikoekin ere, William Shakespeare bera barne, nola erlazionatzen garen pentsatzeko. Autofikzio bat da, klasiko edo klasiko autofikatu batetik abiatuta, eta nahiago nuke gauza bietako bat ere ez izatea. Jatorriari buruzko pieza bat da, lehenago etorri zena nola jazartzen zaigun azaltzen duena, alde batera utzi nahi badugu ere. Gure aurrekoek nola eraikitzen gaituzten. Zure bizitza asmatzeko moduari buruz, iragana ahaztu gabe. Beste amaiera posible batzuk irudikatzeko moduari buruz. Andrea Jiménez.

Mi padre es Lear, pero nunca ha entrado en un teatro. Yo soy Cordelia. Y soy directora de teatro. Como ella, voy a buscar a Lear, voy a atreverme a mirarlo y voy a intentar perdonar. Y lo voy a hacer desde un escenario. Cada noche, un actor distinto, será Lear, será mi padre, será un posible padre, uno que sí quiera sentarse en un teatro a conversar.

Esta versión-simulacro de Rey Lear aspira a ser una puerta abierta para pensar cómo nos relacionamos con nuestros padres, los biológicos, pero también los metafóricos, incluido el mismo William Shakespeare. Es una autoficción a partir de un clásico o un clásico autoficcionado, y ojalá ninguna de las dos cosas. Es una pieza sobre el origen, sobre cómo lo que vino antes nos persigue aunque queramos ignorarlo. Sobre cómo nos construyen quienes nos preceden. Sobre cómo inventar una vida que te pertenezca sin olvidar el pasado. Andrea Jiménez.

# Contra Ana

## UNI-EIBAR

Alma García | Cía. la Contraria _ Madrid

**22** | **OTSAILA** FEBRERO | **Igandea** Domingo | **19:00**

### 80’ DRAMA

**Antzezleak _** Intérpretes
Carmen Climent, Alma García, León Molina,
Cristian Olarte, Jone Laspiur

**Zuzendaritza _** Dirección
Paco Montes

*Contra Ana* autofikzio-lan bat da, anorexia islatzen duena (eta TCA bat bere konplexutasunean), Alma García egilearen benetako esperientzian oinarrituta. 17 urterekin Bartzelonako klinika batean ingresatuta igaro zuen urtea du ardatz, eta gogoeta egiten du identitateari buruz eta kontzeptu horrek berarengan izan zuen eraginari buruz. Obrak zergatiak aztertzen ditu eta baita gizarteak TCA baten garapenean (edo mantentzean) duen erantzukizuna ere.

*Contra Ana* es una autoficción que retrata la anorexia (y por descontado qué es un TCA en su complejidad) desde la experiencia real de la autora, Alma García. Se centra especialmente en el año que pasó ingresada con 17 años en una clínica en Barcelona y reflexiona sobre la identidad y lo que este concepto ha supuesto para ella. La obra se adentra en la búsqueda de los porqués y en la responsabilidad que la sociedad tiene en el desarrollo (o mantenimiento) de un TCA.





# Nor naizen baneki

## COLISEO

Harkaitz Cano, Ximun Fuchs |
Axut! – Artedrama _ Lapurdi, Bizkaia

**24** | **OTSAILA** FEBRERO | **Asteartea** Martes | **19:00**

### 130’ DRAMA

**Antzezleak _** Intérpretes
Ramon Agirre, Garoa Bugallo, Maialen Diaz, Aline Etxeberri,
Manex Fuchs, Idoia Tapia, Oier Zuñiga

**Zuzendaritza _** Dirección
Ximun Fuchs

EUSKARAZ



Nola jakin nor zaren, ingurune aldakor batean etengabe aldatzen dena bazara?

Nor naizen baneki... Zuk badakizu? Jakin nahi zenuke? Bada jakin ondoren damutu denik? Angelu guztietatik nahi zenuke zeure burua ikusi, ala behar da angelu itsu bat? Ezagutu daiteke norbere burua isolatuki, norbere ingurunea ezagutu gabe? Nola jakin, zinez, zarena zarela? Gurasoen ispiluan? Seme-alabenean? Aztarnei esker? Nola jakin nor zaren, ingurune aldakor batean etengabe aldatzen dena bazara?

Ez ote da antzerkia barne indusketarako tresnarik onena?

¿Cómo saber quién eres, si vas mutando sin cesar en un entorno cambiante?

Ojalá supiera quién soy... ¿Lo sabes tú? ¿Te gustaría saberlo? ¿No temes arrepentirte después? ¿Es saludable observarnos desde todos los ángulos, o hace falta un punto ciego? ¿Es posible reconocerse dándole la espalda al entorno? ¿Cómo saber que eres de veras quien dices ser? ¿En el reflejo de tus padres? ¿En el de tus hijos? ¿Leyendo las huellas que vas dejando atrás? ¿Cómo saber quién eres, si vas mutando sin cesar en un entorno cambiante?

¿Y si fuese el teatro la mejor forma de desencadenar una arqueología introspectiva?



# Dysphoria

María Goiricelaya | Histrión Teatro _ Granada

**COLISEO**

**26** | **OTSAILA** FEBRERO | **Osteguna** Jueves | **19:00**

**90' DRAMA**

**Antzezleak _** Intérpretes
Gema Matarranz

**Zuzendaritza _** Dirección
María Goiricelaya

"Dysphoria" bakarrizketa arriskutsu eta teatraltasunez bete bat da, eta Trans Lege berrian jartzen du arreta, genero-arloko iruzurrean eta gizarteak arau hori etikoki ez urratzeko egiten duen borrokan.

Lan honek erronka egiten digu gure paradigmak zalantzan jartzera; detonagailu bat da, justiziak nola funtzionatzen duen pentsatzera behartzen baikaitu, eskubideak eta askatasunak denontzat berdinak izan ez daitezen eraikita dagoen munduan.

Bera shock egoeran dago. Hamasei urteko alabak aitortu berri dio ez dela neska, mutila baizik. Ez da gehiago izango Alejandra; benetan dena izango da: Alex. Terapia, sentsibilizazio-taldeak, ezer ez da aski onartzeko bere alaba ez dela gehiago bere alaba izango; eta ukazioak, erresistentziak eta frustrazioak aurrera egingo dute, aldaketak eragiten duen minetik. Hala ere, dena aldatuko da polizia etxera iritsi, eta Alexi sexu-abusua egitea leporatzen dionean. Ustekabeko gertaera horrek gure protagonista bultzatuko du eromenezko lasterketa bati ekitera, semea ulertzen saiatzeko eta babesteko, zokoratu, suntsitu eta identitatea eta gizaki gisa dituen eskubideak lapurtu nahi dizkion guztiaren aurrean.

"Dysphoria" es un monólogo arriesgado y lleno de teatralidad que pone el foco en la reciente Ley Trans, en el fraude de género y en la lucha de la sociedad por la no vulneración ética de esta norma.

Es un trabajo que nos reta a cuestionar nuestros paradigmas; un detonador que nos obliga a pensar en cómo opera la justicia en un mundo construido para que los derechos y libertades no sean iguales para todos.

Ella está en shock. Su hija de dieciséis años acaba de confesarle que no es una chica; sino que es un chico. Ya no será más Alejandra, será quien realmente es: Alex. La terapia, los grupos de sensibilización, nada es suficiente para aceptar el hecho de que su hija ya no será más su hija y la negación, la resistencia y la frustración se abren paso desde el dolor que provoca el cambio. Sin embargo, todo gira cuando la policía llega a casa acusando a Alex de abuso sexual. Este hecho inesperado empuja a nuestra protagonista a emprender una frenética carrera para intentar comprender a su hijo y protegerle frente a todo aquello que quiere arrinconarle, destruirle y robarle su identidad y sus derechos como ser humano.





# El peor espectáculo del mundo. De momento

Zanguango Teatro _ Araba

**UNI-EIBAR**

**27** | **OTSAILA** FEBRERO | **Ostirala** Viernes | **19:00**

**65' COMEDIA**

**Antzezleak _** Intérpretes
Txubio Fernández

**Zuzendaritza _** Dirección
Miguel Múñoz

Biopic zoro bat, errebaleko heroi batena, alproja batena. Mundura jaio zen, munduan denetik egon behar delako. Pieza komiko bat, norbait izaten saiatu arren, azkenean untxiena bezalako bizitza dutenei buruzkoa: arrastorik utzi gabe sastrakaz sastraka salto egin, eta, atzera begiratzean, eskopetekiko beldurra besterik ez dute ikusten. Aurrekontu hutsalarekin eta material eskas-eskasekin beren bidea egiten asmatu duten guztientzako omenaldia. 1993an sortu zen Zanguango Teatro, eta kaleko zein aretoetako ikuskizunak ekoizten ditu. Ekintza dramatikoaren ardatz gisa baliatzen dituzte sorkuntza kolektiboko teknikak, alderdi fisikoa, mugimendua, espazioaren erabilera eta erritmoa. Giza portaeraren alderdi guztiak lantzen dituzte, eguneroko egoera ezagunen alderdi magiko, nahasi eta dibertigarriak bilatzearekin batera. Umorearen alde egiten dute. Umore kritikoa eta korrosiboa, gai sozialekin, politikarekin eta gizatasunarekin konprometitua. Tragediara, poesiara, ironiara eta absurdora hurbiltzen dira, gure patetikotasunaz barre egiteko.

Un delirante documento, un biopic protagonizado por un héroe de barrio, un ser prescindible que está en el mundo porque tiene que haber de todo. Una pieza cómica sobre quienes intentan ser alguien pero, al final, su vida es como la de los conejos, que saltan de mato en mato sin dejar rastro y, al mirar atrás, solo ven el miedo a las escopetas. Un acto de amor hacia todas esas personas que se hacen a sí mismas con bajo presupuesto y malos materiales. Fundada en 1993, Zanguango Teatro ha producido y produce espectáculos de calle y de sala. Se basan en técnicas de creación colectiva, en lo físico, el movimiento, en la utilización del espacio y el ritmo como ejes de la acción dramática. Tratan el comportamiento humano en todas sus facetas, buscando la parte mágica, desconcertante y divertida de las situaciones más cotidianas y reconocibles. Apuestan por el humor, un humor crítico, corrosivo, comprometido con lo social, con lo político, con lo humano, que bascula hacia la tragedia, la poesía, la ironía y el absurdo, para reírnos de lo patéticos que somos.

# Hodei guztien gainetik

**COLISEO**

Markeliñe _ Bizkaia

**28** | **OTSAILA** FEBRERO | **Larunbata** Sábado | **17:00**

Hodei guztien gainetik antzezlanak bere lanaren errutinan harrapatuta, jolasteko plazera ahaztu duen aita lanpetu baten istorioa kontatzen du. Egun batean, zorabioa jasan ondoren, harrituta esnatzen da kaleko aingeru bat bizi den kartoizko hodeien artean. Pertsonaia magiko horrekin ezarritako harremanaren bidez, aitak galdutako inozentziara bidaia hasiko du. Kartoi zati bakoitza, sinplea den hori aparteko bihurtzeko eta une bakoi- tza abentura bihurtzeko gonbidapena da. Animalien etxalde bat duen kartoizko kaxa bat, bainatzeko eta urpean aritzeko hodei bat. Beste bat, espazio-ibilaldi baterako zaldi-gurdi bihurtua... Kartoizko zeru horretatik, urrutitik begiratzen diete munduko guerra itsu eta ergelei. Baita aitarik gabe jolasten den ume bati ere, eta horrek tristura eta damua eragiten ditu, berreskuraezina den denborarengatik.

“Pertsona handi guztiak umeak izan dira lehen. Baina gutxik gogoratzen dute.” Printze txikia.

Hodei guztien gainetik cuenta la historia de un padre que, atrapado en la rutina de su trabajo, ha olvidado el placer de jugar. Un día, tras sufrir un desmayo, se despierta extrañado entre nubes de cartón donde habita un ángel vagabundo. A través de la relación con este mágico personaje, el padre inicia un viaje hacia la inocencia perdida. Cada trozo de cartón es una invitación a transformar lo simple en extraordinario y a convertir cada momento en una aventura. Una caja de cartón que contiene una granja de animales, una nube en la que bañarse y bucear. Otra, transformada en un carruaje de caballos para un paseo espacial... Desde este cielo de cartón, observan, a distancia, las tontas y ciegas batallas del mundo. Y también a un niño que juega sin su padre, lo que provoca la tristeza y el arrepentimiento por un tiempo irrecuperable.

“Todas las personas grandes han sido niños antes. Pero pocas lo recuerdan “. El Principito.



**65’ INFANTIL**

**Antzezleak _ Intérpretes**
Maite Bayon, Fernando Barado

**Zuzendaritza _ Dirección**
Markeliñe

SIN TEXTO



# Loreen hizkuntza

**UNI-EIBAR**

La Mapatxa _ Bizkaia

**01** | **MARTXOA** MARZO | **Igandea** Domingo | **19:00**

**90’ COMEDIA**

EUSKARAZ

**Antzezleak _ Intérpretes**
Mikel Losada, Olatz Ganboa, Unai Izquierdo, Getari Etxegarai

**Zuzendaritza _ Dirección**
Getari Etxegarai

Lorcaren Doña Rosita la soltera o el lenguaje de las flores obran ageri den itxaropenen gaia abiapuntu hartuta, XXI. mendeko maitasun-harremanak jorratzen ditu antzezlan honek, eta nola aldatu den ligatzeko prozesua azken urteotan. Zenbait egoeraren bidez, gogoeta egiten du gai horietaz, betiere umorearen ikuspegitik.

Zortzi lorez edo koadro dramatikoz osatutako komedia da, bi hizkuntzatan (gaztelaniaz eta euskaraz) jokatua eta Ibon Belandiak konposatu eta interpretatutako zuzeneko musikaz lagundua, non ahozko tradizioko herri-kantak musika elektroniko bihurtuta berreskuratzen diren. Kantu horiek guztiek osagai bera dute: loreak norbait konkistatzeko estrategia gisa erabiltzea.

Partiendo del tema de las expectativas en la obra de Lorca Doña Rosita la soltera o el lenguaje de las flores, el trabajo aborda las relaciones amorosas en el siglo XXI y cómo ha cambiado el proceso de ligar en los últimos años para reflexionar, en clave de humor, a través de diferentes situaciones.

Es una comedia en ocho flores o cuadros dramáticos, en idioma bilingüe (castellano y euskera), con música en directo compuesta e interpretada por Ibon Belandia donde se recuperan canciones populares de la tradición oral reconvertidas en música electrónica. Todas ellas tienen un denominador común: el uso de las flores como estrategia de conquista.





# La barraca

## COLISEO

**Vicente Blasco Ibáñez | Teatro de Malta Olympia Metropolitana, Pentación Espectáculos** _ Alicante

**03** | **MARTXOA** MARZO | **Asteartea** Martes | **19:00**

### 90' DRAMA

**Antzezleak** _ Intérpretes
Daniel Albaladejo, Antonio Hortelano, Patricia Ross, Jorge Mayor, Antonio Sansano, Claudia Taboada, Elena Alférez, Jaime Riba

**Zuzendaritza** _ Dirección
Magüi Mira

**Moldaketa** _ Adaptación
Marta Torres

La barraca gaitzespen baten istorioa da; hain zuzen ere, Batiste Borrullen familiak Valentziako barraka batera eta aurretik Barret izeneko familia batek belaunaldiz belaunaldi landutako lurretara iristen denean jasaten duen gaitzespenarena. Bertako baratzezainek —errentariak denak— hutsik eduki nahi dituzte lur horiek, errentatzaileen aurrean boterea erakusteko. Gatazkak gero eta indar handiagoa hartuko du, tragedia bihurtzeraino.

La barraca betiko istorio bat da, arrazoiaren eta indarkeriaren arteko betiereko borrokaz eta jokabide basatiak dituen komunitate batez hitz egiten diguna. Hain beharrezkoa zaigun eta jaio garen lurrean sustraitzeak ematen digun identitateaz hitz egiten digu. Identitatearen eta autoestimuaren arteko harreman estuarekin lotzen gaitu, baita bizitza errealarekin ere, zentzumenen bidez sumatzen eta ulertzen dugunarekin.

La barraca cuenta el rechazo al que se ve sometida la familia de Batiste Borrull al instalarse en una barraca y en unas tierras de la huerta valenciana que anteriormente trabajaron varias generaciones de otra familia llamada Barret. Los hortelanos de la zona, arrendatarios todos ellos, pretenden mantener yermas esas tierras como símbolo de poder frente a sus arrendadores. El conflicto irá creciendo de intensidad hasta convertirse en tragedia.

La barraca es una historia de siempre que nos habla de la eterna lucha entre la razón y la violencia, de una comunidad enferma con comportamientos salvajes. Una historia que nos habla de la identidad tan necesaria que nos da el arraigo a la tierra en la que nacemos. Una historia que nos conecta con la estrecha relación de la identidad y la autoestima; que nos conecta con la vida real, la que percibimos y entendemos a través de los sentidos.

# Hasta el último baile

Eva Guerrero _ Bizkaia

**COLISEO**

**05** | **MARTXOA** MARZO | **Osteguna** Jueves | **19:00**

Hasta el último baile zuzeneko musikaz girotutako dantza-ikuskizuna da, denboraren iragaitea, gorputzaren eraldaketa, absentziak eta oroitzapenak dituena hizpide. Fikziozko autobiografia da. Nola gordetzen dira oroitzapenak gorputzean? Zer forma ematen dizkidate dagoeneko hemen ez dauden pertsonek? Zer eraldaketa izaten ditu nire gorputzak denbora igaro ahala? Zure baitako zer dago niregan?

Dantza eta musika protagonista direla, oroitzapenetatik, beste pertsona batzuen ahotsetatik eta iraganeko melodietatik abiatuta, nahaspilatutako istorio bat kontatzen dugu, autobiografia apur batekin eta fikzio apur batekin, eta hor guztia nahasten da, zahartzaroari, gorputzari, gorputzean geratu eta bera eraldatzen duten lorratz guztiei eta dantzak belaunaldi ezberdinak batzeko duen ahalmenari buruz gogoeta egiteko.

Hasta el último baile es un espectáculo de danza con música en directo que habla del paso del tiempo, la transformación del cuerpo, las ausencias y los recuerdos. Es una autobiografía ficticia. ¿Cómo se guardan los recuerdos en el cuerpo? ¿Qué formas me dan las personas que ya no están? ¿Cómo se transforma mi cuerpo con el paso del tiempo? ¿Qué hay de ti en mí?

